

ikusiker



**INTERNET ETA SARE
SOZIALETAKO IKUS-
ENTZUNEZKO KONTSUMOA**

2. Txostena


2019ko apirila

INTERNET ETA SARE SOZIALEN KONTSUMOA

1. Internet eta sare sozialetan ikusitako azken produktuak

Inkestaren partaideek Interneten eta sare sozialetan ikusi dituzten 298 produktu desberdin aipatu dituzte. Telebista kontsumoaren kasuan 133 aipatu dira. Honek adierazten du sarean egiten den ikus-entzunezko aukeraketa zabalagoa dela.


1. Irudia - Produktuen aipamenak:



Sarea eskaintza handia duen lekua denez, produktuen gehiengoa (%72,04a) behin baino ez da aipatu. Eta %12,90a birritan soilik izendatu da.

Aipatu diren produktuen artean La Resistencia da gailentzen da, aipameneren %15,53a lortu du. Kasu berezia dela esan daiteke. Telebista kontsumoa aztertzerakoan honakoak aipameneren %3,27 baino ez du lortu. Honek argi uzten du Internet eta sare sozialetan programa honekiko joera handiagoa dela.

2. Irudia - La Resistenciaren kontsumoa Internet eta telebistan:




Iturria: Ikusiker

Aipatzekoa da produktu batzuk generikoki adierazten direla. "Bideoak" eta "Musika" dira hauek ordezkatzeko erabiltzen diren kontzeptuetako batzuk.

Aurrera eginez, generorik garrantzitsuenaren sarean fikzioa da. Izendatu diren produktuen %31,54 sailak dira eta %6,08a pelikulak.


3. Irudia - Fikzio generoan nagusitu diren produktuak:



Iturria: Ikusiker

Pelikulen artean produktu bakarra baino ez da errepikatzen Budapest. Gainerakoak behin baino ez dira adierazi.

4. Irudia - Fikzio generoan nagusitu diren produktuak:



Iturria: Ikusiker

Partaideen %10,40ak produktu hezitzaile dibulгатiaboak aipatu ditu, %10,07ak musika, %7,05ak kirolak eta %2,68ak anime edo manga produktuak.

"Gainerako produktuak" bezala izendatutako arloan, produktuen %26,80a sartzen da.

Hau horrela da arrazoi bategatik, jendeak inkesta erantzuterakoan edukia beharrean plataforma aipatzen du. Horrek aipamen horiek sailkatu ezinak izatea eragiten du.

Euskaraz kontsumitu diren produktuak %4,03a baino ez dira izan. Produktu hauek telebista kontsumoaren inkestan aipatu diren antzekoak dira: Ur Handitan, Herri Txiki, Gure Kasa, arrauna, txirrindularitza eta Brinkola.


Guztiko kontsumoaren %0,87a izan da Ur Handitan produktuarena. Gainerakoak, behin baino ez dira izendatu.

Telebistan zein sarean errepikatu diren edukiak hauek izan dira:

- 1 - El Conquis
- 2 - GH
- 3 - Champions
- 4 - Ur Handitan
- 5 - La Resistencia

2. Produktuak ikusi diren lekua

5. Irudia - Produktuak ikusteko erabilitako espazioak:



Iturria: Ikusiker

Parte-hartzaile gehienek (%85,30ak) etxea aukeratu dute Internet eta sare sozialetan produktuak ikusteko. Garraio publikoa beste aukeratako bat izan da, %5,24ak honakoa aukeratu du. Bada ikus-entzunezkoak kanean kontsumitu duenik ere bai.

%7,13ak bestalde beste espazio batzuek baliatu dela jakinarazi du. Espazio horiek hauek dira:


- 1 - Akademia
- 2 - Lagun baten etxea
- 3 - Klasea
- 4 - Gaztelekua
- 5 - Liburutegia

- 6 - Lokala
- 7 - Ikasle egoitza
- 8 - Unibertsitatea

Leku hauek erabili izanak, ikus-entzunezkoen kontsumoa entretenimendu edota distrakzio modura egiten dela adierazten du.

3. Erabili diren plataformak

6. Irudia - Erabili diren plataformak:




Iturria: Ikusiker

Eraitzen arabera plataforma erabiliena Youtube izan da. Inkesta bete dutenen %43,16ak aukeratu du. Netflix da hurrengoa hautuen %23,16arekin. Instagram ere aipatzekoa da, %9,47ak aipatu du. Sare sozial hau gero eta gehiago erabiltzen da. Facebooken kasuan berriz, datuek erakusten dutenaren arabera kontrakoa da.

Goiko grafikoak islatzen duenez, %15,79ak bertan ageri ez diren beste plataforma batzuk erabili ditu.

7. Irudia - Fikzio generoan nagusitu diren produktuak:



Iturria: Ikusiker


Produktu hauen artean Megadede nagusitzen da. Beste plataforma batzuk erabili dituztela adierazi dutenen %39,60ak aitortu du honakoaren erabilera. Orrialde honetan fikzioa kontsumitzen da batez ere. Horrez gain gune pirata da, ordaindu behar ez dena.

Bestelako guneak erabiltzen dituztenen %11,88ak Movistar+ erabili duela adierazi du. %8,91k berriz, Eitb Nahieran.

Aipatu dituzten espazio gehienak gune piratak dira. Honen adibide dira MejorTorrent, Torrent, Megadede, Pepecine, Series Papaya, Series Danko edota Series Gato.

4. Aukeratutako hizkuntza

8. Irudia - Hizkuntzaren erabilera:



Iturria: Ikusiker

Hizkuntza erabiliena espainiera izan da, %73,07ak aukeratu du. Hurrengo lengoaia hautatuena ingelesa (%19,21aren hautua) da. Euskara %4,37ak baino ez du erabili.

Azpimarratzekoa da ingelesa euskara baino gehiago erabiltzea. Aipatu diren plataformatan ohikoa da euskarazko produkturik ez aurkitzea. Eskaintza urria dago. Netflix, HBO edo Amazon Prime bezalako plataformak garrantzia handia irabazten hasi dira. Askok produktuak hizkuntza originalean ikustea gustuko dute, hau izan daiteke ingeles erabileraren arrazoi nagusia.

Bestalde beste hizkuntza batzuk maneiatu dituztela adierazi dutenek (%2,92ak) italiera (%0,29ak), korearra (%0,44ak), japoniera (%0,73ak), gaelikoa (%0,15ak) eta katalana (0,15ak) aipatu dituzte. Zenbaitek ere (%0,29ak) soinu gabeko produktuak kontsumitu dituzte. Korearra eta japoniera hautatu dutenak manga edo anime generoa kontsumitu dute.